

ZABORRA EZ DA EXISTITZEN, UKONTSUMOAREN ETA HONDAKINEN GIZARTEARI BURUZ HAUSNARTZEKO ERAKUSKETA

· Ostegun honetan, irailaren 22a, Basurama kolektiboaren 'Zaborra ez da existitzen' erakusketa irekiko da Cristina Enean, kontsumoari eta hondakinen gizarteari buruz hausnartzeko gonbitea.

· Irailaren 24an, larunbata, erakusketaren egileek bisita gidatua egingo dute (12:30ean) herritar guztientzat.



Donostia, 2022ko irailaren 21a.- Bada euskal esaera bat, esaten duena izena duen guztia existitzen dela. Hala ere, Cristina Enean datorren irailaren 22an atek irekiko dituen erakusketa berriak sinesmen horren aurrean jartzen gaitu. 'Zaborra ez da existitzen' erakusketa Basurama kolektiboak ekoitzi du, eta "kontsumitzen dugunari buruzko hausnarketa bultzatzearen alde" egiten duela azaldu Basuramako kide eta erakusketako arduradunetako bat den Pablo Reyk.

Basuramak, 2001ean sortutako kultura- eta ingurumen-ikerketak, -sorkuntza eta -ekoizpenean diharduen kolektiboak, bere azterlana eta jarduna ekoizpen-prozesuetan, horiek dakartzaten hondakinen sorreran eta egungo egoera horiek sorrarazten dituzten sormen-aukeretan oinarritu du. "Nagusiki bi modutan egiten du lan: batetik, ekintzatik eta hondakinen bidezko eraikuntzatik, lankidetzaproiektuekin, jolas-egiturak garatuz eta espazio publikoan lan eginez; eta, bestetik, material artistikoa lantzen dugu, bideoen, argazkien eta instalazioen bidez".

Horrela, abenduaren 11ra arte Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxean ikusgai egongo den erakusketa honetan ikus-entzunezko materiala eta instalazio



fisikoak bilduko dira, hondakinetatik abiatuta, *"kontsumo eta hondakinen gizarte honi buruz hausnartzeko helburuarekin"*.

Erakusketaren izenburua *"probokazio bat da, gure kontsumo- eta hondakin-ereduari buruzko hausnarketarako gonbitea"*, gehitu du Rubén Lorenzok, Basuramako kide ere badenak, eta gogorarazi du 'zaborra ez da existitzen' esaldia ez dela eurena, baizik eta agente birziklatzaileekin eta txatarrerorekin lan eginez ikasi dutela, eta horiek diote ez dutela hondakinekin lan egiten, lehengaiekin baizik. *"Basuramatik, eta erakusketa hau horren froga da, gizarteak botatzen dituen hondakinekin ere lan egiten dugu, eta, garbitu eta tratatu ondoren, lehengai bihurtzen ditugu, gure ingurunea eta gure espazioak eraldatzeko"*.

Hiru espazio

Zaborra ez da existitzen erakusketak Mandasko duke-dukesaren jauregiko erakusketa-espazioko hiru areto hartzen ditu. Egileek azaldu duten bezala, *"lehenengoak hainbat bideo-instalazio erakusten ditu, non agente txatarbiltzaileen eta birziklatzaileen garrantzia balioesten den, eta lurraldeko zabortegien errepaso egiten da"*, ordaintzeko orduan produktuak supermerkatuetan uzten ditugun zintak zabortegietako zinta garraiatzaileekin aurrez-aurre jarriz. Horrez gain, jauregiko goiko bi aretoetan, Basuramak Espainiako, Afrikako edota Brasileko hainbat komunitate eta ikastetxerekin eginiko lanen adibideak ikus daitezke, besteak beste material eta elementu berrerabiliekin eginiko parkeak eta jolas- eta topaketa-guneak, bai eta *"pneumatikoekin eta zuhaitzen egurrezko tutoreekin eginiko bi jolas-irla ere, dena material berrerabiliekin egina, non, bertarutzen diren haur eta gazteek jolastu ahal izango baituten"*.

Hainbat lekutan eraikitako jolas- eta topaketa-gune horien artean garrantzitsuena, auto-eskolak deiturikoak, eta erakusketan hainbat adibide ikus daitezkeenak, zera da: *"zure jendearekin egiten direla, zure auzotarren komunitatearen edo zure ikastetxeko ikasleen laguntzarekin"*, azpimarratu dute Pablok eta Rubenek, lankidetzaren eta hausnarketa ezinbestekoak baitira, hondakinak lehengai bihurtzeko orduan. Izan ere, zabor gisa ikusteari uzten ez diegun arte, ezinezkoa egiten zaigu beste erabilera bat izan dezaketenik ikustea, eta, horrexegatik, *"garrantzitsuena ez da amaierako produktua, baizik eta gure parke eta eskola-atarietan hondakinek izan dezaketen erabilera zein izango den erabakitzeko abian jarritako prozesu kolektiboa eta pedagogikoa"*, azaldu dute erakusketako egileek.

Egileek erakusketara bisita gidatua egingo dute datorren larunbatean, irailak 24, eguerdiko 12:30ean, interesa duten guztiei zuzenduta. Ez da beharrezkoa alde zurretik izena ematea.

**LA BASURA NO EXISTE,
UNA MUESTRA PARA REFLEXIONAR
SOBRE LA SOCIEDAD DE CONSUMO Y DESECHO**

· Este jueves 22 de septiembre se inaugura en Cristina Enea la exposición 'La basura no existe', del colectivo Basurama, una invitación a reflexionar sobre la sociedad de consumo y desecho. la muestra conjuga video-instalaciones, material audiovisual e instalaciones y zonas de juego elaboradas con material de desecho.

· El sábado 24 de septiembre los autores de la exposición realizarán una visita guiada (12:30 h.) dirigida a toda la ciudadanía.



Donostia / San Sebastián, 21 de septiembre de 2022.- Existe un dicho vasco que asegura que todo lo que tiene nombre, existe. Sin embargo, la nueva exposición que abre sus puertas en Cristina Enea este próximo 22 de septiembre, nos confronta con esa creencia. La muestra 'La basura no existe', producida por el colectivo Basurama, aboga por "impulsar una reflexión sobre lo que consumimos y desechamos", explica Pablo Rey, uno de los responsables de la muestra y miembro del colectivo Basurama.

Basurama, colectivo dedicado a la investigación, creación y producción cultural y medioambiental fundado en 2001, ha centrado su área de estudio y actuación en los procesos productivos, la generación de desechos que éstos implican y las posibilidades creativas que suscitan estas coyunturas contemporáneas. "Solemos trabajar principalmente de dos formas; una, desde la acción y la construcción a través de los desechos con proyectos colaborativos, donde desarrollamos estructuras de juego y trabajamos en el espacio público; y, por otro lado, trabajamos material artístico, a través de vídeos, fotografías e instalaciones".

Mandasko Dukearen pasealekua, 66 20012 Donostia / San Sebastián | Tel: + 34 943 453 526 | cristinaenea@donostia.eus | www.cristinaenea.eus



Así, en esta muestra, que se podrá visitar en el Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina Enea hasta el próximo 11 de diciembre, reúnen material audiovisual e instalaciones físicas, a partir de materiales de desecho, con el objetivo de *"reflexionar sobre esta sociedad de consumo y desecho"*.

El título de la exposición *"es una provocación, una invitación a la reflexión sobre nuestro modelo de consumo y desecho"*, añade Rubén Lorenzo, también miembro de Basurama, quien recuerda que la frase 'la basura no existe' no es suya, sino que la han aprendido trabajando con agentes recicladores y chatarreros, quienes sostienen que no trabajan con residuos, sino con materias primas. *"Desde Basurama, y esta exposición es una prueba de ello, también trabajamos con los residuos que desecha la sociedad, y, tras limpiarlos y tratarlos, los convertimos en materia prima, para transformar nuestro entorno y nuestro espacios"*.

Tres espacios

La exposición ***La basura no existe*** ocupa tres salas del espacio expositivo del palacio de los duques de Mandas. Como explican los autores, la primera de ellas, *"muestra varias video-instalaciones, donde se pone en valor la importancia de los agentes chatarreros y recicladores, y se hace un repaso de los vertederos del territorio"*, contraponiendo las cintas donde depositamos los productos en los supermercados a la hora de pagar, y las cintas transportadoras de los vertederos, mientras que en las dos salas superiores del palacio se exponen ejemplos de trabajos realizados por Basurama con diferentes comunidades y centros escolares de España, África o Brasil, de parques y zonas de juego y encuentro elaborados con elementos y materiales reutilizados, acompañados de *"dos islas de juegos realizadas con neumáticos y tutores de madera para árboles, todo ello material de desecho reutilizado, en los que los y las visitantes más pequeñas podrán jugar y pasar un buen rato"*.

Lo más importante de estos espacios de juego y encuentro contruidos en diferentes lugares, llamados auto-coles, y de los que se pueden ver varios ejemplos en la exposición, es que *"se realizan con tu gente, con la ayuda y colaboración de tu comunidad de vecinos o el alumnado de tu colegio"*, subrayan Pablo y Rubén, quienes recalcan que la acción, la cooperación y la reflexión son imprescindibles a la hora de convertir los residuos en materias primas y darles un uso que, *"hasta que no dejamos de verlos como basura, ni nos imaginamos"*, ya que lo importante no es el producto final, sino *"el proceso colectivo y pedagógico por el cual se ha decidido qué hacer con los desechos y qué utilidad darles para nuestro parque o patio de colegio"*.

Los autores realizarán una visita guiada a la exposición este próximo sábado, 24 de septiembre, a las 12:30 h. dirigida a todas las personas interesadas. No es necesario inscribirse previamente.

Mandasko Dukearen pasealekua, 66 20012 Donostia / San Sebastián | Tel: + 34 943 453 526 | cristinaenea@donostia.eus | www.cristinaenea.eus

Patronoak | Patronos:



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Babesle iraunkorra | Colaborador permanente:

